

**IV. ERANSKINA**  
**ENPRESA ONURADUNEN HAUTAGARRITASUN BALDINTZA JAKINEN**  
**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA**

---

jauna/andrea, adinez nagusia, NAN

zenbakiaren titularra, erakundearen (aurrerantzean, "Eskatzailea")

izenean eta ordezkari gisa jarduten duena (egoitza soziala: ;

harremanetarako telefonoa: ; harremanetarako helbide elektronikoa:

; IFZ: ), gisa,

**Honen bitartez eta legezko ondorio egoki guztietarako, ADIERAZTEN du:**

- i) Enpresa eskatzaileak ondarearen narriadura argia izan duela, uneko edo aurreikusitako galera metatuen ondorioz, beharrezkoa izango dela enpresaren kaudimena indartzea eta, Funtsaren kargurako aldi baterako finantza laguntza publikoa jaso ezean, enpresa jarduera etetera edo funtzionamenduan jarraitzeko zailtasun larriak izatera irits litekeela, hartara inpaktu negatibo nabarmena izanda jarduera ekonomikoan edo enpleguaren arloan, nazio edo eskualde mailan.
- ii) Bitarteko pribatuak baliatzen dituzten enpresa eskatzailearen kaudimena indartzeko bideak osatu egin behar direla aldi baterako laguntza publikoarekin.
- iii) Enpresak egindako Bideragarritasun Plana irizpide objektiboetan oinarritu dela enpresaren epe ertainerako eta luzerako bideragarritasuna ebaluatu ahal izateko, Funtsaren kargura eskatu den aldi baterako laguntza publikorako aurreikusitako erabilera bertan deskribatzen dela, eta bertan azaldu direla ere ingurumen arriskuak, horiei aurre egiteko aurreikuspenak eta estrategia energetikoa, eta Funtsaren aldetiko laguntzen berreskuratzea Funtsa iraungi aurretik.
- iv) Enpresa eskatzaileak edo enpresa eskatzailearen jarduera sektoreak garrantzi sistemikoa edo estrategikoa duela nazio edo eskualde mailako ekoizpen ehunean, besteak beste, duen inpaktu sozial eta ekonomiko garrantzitsuagatik; edo osasunaren, segurtasun publikoaren, azpiegituren edo komunikazioen arlorako duen garrantziagatik; edo merkatuen funtzionamendu zuzenari egiten dion ekarpenagatik; edo ekonomia osorako duen izaera bultzatzaileagatik; edo duen izaera berritzaileagatik; edo ematen dituen zerbitzuen funtsezko izaeragatik; edo trantsizio ekologikoaren edo digitalizazioaren arloetako epe ertaineko helburuak lortzeko duen eginkizunagatik; edo produktibitatearen edo giza kapitalaren areagotzeagatik.

**(e)n, 2021ko                      ren      (e)(a)n**

**Signatura**